

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 590/2021 Erabakia, urriaren 13koa. Onestea Silvia Nuñez Castro aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko lanpostua uztea, berak eskatuta

Uztailaren 8ko Foru Gobernu Kontseiluaren 431/2019 Erabakiaren bidez, Silvia Nuñez Castro behin-behineko aholkulari tekniko lanpostua betetzeko izendatu zen (kodea: 1122.001).

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, Foru Aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko lanpostuak beteko dituztenak izendatzea eta kargutik kentzea.

Silvia Nuñez Castrok aurkeztutako ukoa ikusi da; beraz, Diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Silvia Nuñez Castro aholkularitza berezia eskaintzeko behin-behineko langile kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2021ko urriaren 14tik aurrera izango du eragina.

Hirugarren. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE